

# UDABERRIYARI.

---

«¡SÉ BIEN VENIDA, PRIMAVERA HERMOSA!»

## **SELGAS.** (*Canto á la Primavera*).

«¡IZAN ZAITE ONGI-ETORRIYA, UDABERRI EDERRA!»

¡Udaberriya! ¡Zér poz aundiya  
Sartzen didazun biyotz-barruan,  
Begiratzean poza, nausirk  
Sortitz osuan.

Ikusitzean, nola zurekin  
Mendi-muñoak poztutzen diran,  
Anchumechoak bezela, nola  
Saltatzen diran.

Nola jasotzen duten mendiak  
Elurrik gabe, tontor goitua;  
Nola garbirik, urdiñ-urdiñik  
Dagon Zerua.

Nola bertiste<sup>1</sup> apaintzen diran  
Charak, oyanak eta saroiak;  
Nola likurta<sup>2</sup> gozoz beterik  
Dauden zelaiyak.

Nola zuaitzat betederdurik,<sup>3</sup>  
Zabaltzen duten itzal gozua;  
Nekaturikan dagonarentzat  
Bedeinkatua.

Nola maitaro gordetzen duten  
Adar-artean kabichuloa,  
Choriyak beren umechoentzat  
Egintakoa.

} Nola choriyak kantatzen duten,  
Atsegindurik, orri-tartean  
Eguzkiyaren-argitasuna  
Datorrenean.

Nola kant' oyek esnatzen duten  
Lotan zegoen iturrichoa;  
Bai-ta beerago dagon erreka  
Leyarrežkoa.<sup>4</sup>

Murmur egiñaz, nola dijoan  
Lore-tartean ibai garbiya,  
Bere kolkoan erantzaturik<sup>5</sup>  
Zeru guztiya.

Eta beerago, nola dijoan  
Arbol ostotsuz inguraturik,  
Ayen itzalpe naigarriyagaz  
Gozaroturik.

Nola dijoan, ugarituaz  
Zelaiyetako choragarriyak;  
Ur garbiyakiñ bustirik, bazter  
Ezkutatiyak.

Apar churizko bagak egiñaz,  
Aitzean pizkor nola dijoan;  
Ugeldiyetan paketurikan  
Nola dagoan.

(1) Esmeralda.—(2) Aroma.—(3) Retratando.  
(4) Betederra=Pompa.—(5) Cristalino.—(5)

Nola batutzen zayon menditik  
Amildutzen dan errekachoa,  
Naroturikan<sup>1</sup> utzirik leku  
Bitartekoak;

Dakartzela kolko garbiyan  
Iturrichoen doneascañiyak,<sup>2</sup>  
Bere bidean arkitutako  
Goai<sup>3</sup> guztiyak.

Febo gorriya, nola Zeruan  
Azaldutzean suzko gurdian,  
Antzezturikan<sup>4</sup> agertutzen dan  
Ibai garbiyan.

Nola loreak makurtzen diran  
Agur egiñaz eguzkiyari,  
Negu-lañoak urrun birali  
Dituenari;

Ken-duenari mendiyetatik  
Lenago zuten elur-mantua;  
Zeukana lurra, bere mendeán  
Gogor lotua;

Dituenari, larrosatutzen  
Bazter guztiyak, azaldutzean,  
Itsasoaren kolko bustikit  
Goratutzean;

Dituenari Zeru garbiyak,  
Arratsaldean, urezstatutzen,  
Danean, gure begiyetatik  
Ezkutatutzen;

Zelai guztiyak dituenari  
Jarri mirariz estalirikan,  
Bere beroaz lur izotztúak  
Indarturikan.

Larrosak, nola zabaldurikan  
Beren gororra,<sup>5</sup> gabaz ichiya,  
Botatzen duten inguruetañ  
Usai eziya.

Nola azuzenak, egun sentiyan,  
Azaltzen diran miragarriyak,  
Erakutsirik intzaren tanto  
Dizdizariyak.

Nola beretan irrist egiñaz,  
Jostatutzendan artekaizea<sup>6</sup>  
Zelai zabala dana lagarik  
Bagaz betea.

Aintzir<sup>7</sup> eder bat dirudiyla  
Gozotasunez mugidatua,  
Begiratzean zeñ garbiya dan  
Bere kolkua.

Nola zumarrak, itsatsirikan  
Daukan mats-ayen goratzallea;  
Erakutsirik bere gañean,  
Pozez, alea.

Nola dastatzen<sup>8</sup> duten erleak  
Loreen ezade<sup>9</sup> dastagarriya;  
Onetatikan ateratzeko  
Gero eziya.

Enadachoak nola kabiya  
Duten egiten tellatuean,  
Beren egöitz<sup>10</sup> negukotikan  
itzulitzean.

Nola choricho jayo-berriyak,  
Luma kizkurrez apaindurikan  
Irtetzen diran egaatutzen  
Kabichotikan.

(1) Fecundando.—(2) Ofrenda.—(3) Corriente.—(4) Pintado.—(5) Cáliz.—  
(6) Brisa.—(7) Lago.—(8) Liban.—(9) Zumo.—(10) Mansión.

Ama-choriyak nola doazen  
Ayen ondoren, erakustera  
Pelleburuak<sup>1</sup> non dauden; bérak  
Kontuz zaitzera.

Arkumechoak nola dabiltzan,  
Améen ondoren, *beeka* gaiśoak;  
Nola jostatzen diran, pozturik  
Anchumechoak.

Arkaitzak eta larre-zelaiyak  
Beera, pizkorrik, saltaturikan,  
Belar ederra dagon tokiyan  
Gelditurikan.

Nola len zeuden odee trinkoak,  
Gure gañetik iges joandiran;  
Elkarri, setaz, bultzaturikan  
Beren joairan.

Nola gaur zerbait ikusten bada  
Len odee beltzak zeuden lekuau,  
Laño churiya dala, jiraka  
Gurpill-moduan.

Dirudiyela gora ta beera  
Dabilen aurcho jostatzallea;  
Kabitik, oraiñ, pozet irten dan  
Chorikumea.

Gañetikan, dumbots-egiñaz,  
Nola jeisten dan uramildea,<sup>2</sup>  
Biralirikan amiltokitik  
Ega-jendea;

Baso gereizdun bereziyetan  
Ezkutaturik, kantatutzera,  
Beren izkuntzan, otseztitzuro,  
Mintzatutzera.

Nola Zeruan, izar ederrak  
Dizdiz egiten duten gabean,  
Beren dizdizak butargiturik<sup>3</sup>  
Emen lurrean;

Et' illargiyak zabaltzen duen  
Argi gozatsu zillarreztua;  
Bere erraňuaz churituran  
Zeru-izartsua.

¡Udaberriya! Lore polliten,  
Chori chikiyan era maitea;  
Zuk, Sortitz dana lagatzen dezu  
Pozez betea.

Zu zera, biyotz illak piztutzen  
Dituzun era maitagarriya;  
Negu beltzko tristetasunen  
Garailariya.

Zurekin datozi usai gozoak,  
Alosi<sup>4</sup> eziñ esangarriyak,  
Eta gizonia lilluratutzen<sup>5</sup>  
Duten argiyak.

Agurtzen zaitut, agurtzen zaitut  
Biyotz-biyotzez, udaberriya;  
Beti-kantako det zeradela  
Nere pozkaiya.

1884-an.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK

(1) Peligro.—(2) Cascada.—(3) Reflejando.—(4) Armonía.—(5) Deslumbran.